

Amaiera txalogarria

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.

Zuzendaria: Jun Märkl.
Donostiako Orfeoia.

Zuzendaria: Jose Antonio Sainz Alfaro.


Bakarlaria: Olena Tokar (sopranoa).

Egitaraua: Madina, Poulenc eta Berlioz-en obrak.

Lekua: Gasteizko Principal Antzokia.

Data: ekainaren 10a.

AMAITU DA Euskadiko Orkestraren 14/15 denboraldia, eta azkeneko saiorako gutiziaz betetako egitaraua prestatu ziguten. Saio dotore eta landu hau hain ezaguna eta ederra den Aita Madinaren *Aita Gurea* lan koral laburrarekin hasi zen. Argentinan 1946. urtean konposatutako otoitz sentitu honek interpretazio gozo eta soila izan zuen Orkestraren eta Donostiako Orfeoia-aren eskutik.



Olena Tokar.

Bost minutuko harribitxi horren ondoren, musika eliztarraren beste adibide zoragarri bat dastatu genuen: Francis Poulenc-en *Gloria*, konpositore frantziarraren lan ezagunenetakoa. Abesbatza eta sopranoarentzako egina dago obra hau, eta aldi honetan Olena Tokar soprano ukrainarrak bere ahots argitsua eta bere adierazkortasuna luzitu zituen lanean zehar, baina batez ere hirugarren mugimenduan, *Domine deus, rex celestis* izenekoan, non benetan kantu dramatiko eta sakona egin zuen.

Eta saio eta denboraldiarekin amaitzeko, musika deskribatzailearen adibide handienetakoa: Berliozen *Sinfonia fantastikoa*. Errusiako Nikolas I.a tsar-aren omenez, bost mugimenduz osatutako sinfonia ezohiko honetan hainbat irudipen eta amesgaizto deskribatzen dira, eta honek ematen dio sinfoniari giro berezi eta imajinatiboa. Irakurketa dinamiko eta taxuzkoa egin zuten Euskadiko Orkestrakoek. Frogatuta geratu zen berriz ere, Jun Märkl zuzendariaren eta taldearen arteko elkar ulertzea. Hurrengo denboraldiaren zain geratzen gara. ■

Montserrat Auzmendi

EUSKAL OROIGARRIA
MAKILA
eskaintza berezia



Opari berezietarako

Pertsonalizatuak

Prezio aukera desberdinak

Iñaki Alberdik eginak



argia

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15

20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

© 943 371 545 - denda@argia.eus

www.argia.eus/denda/makilak

